

JUAN MARI ABURTO



kultura

aldizkaria

A

Aurkibidea

Berbagunea (2-3)

Herri txikian, handiak: Juan Mari Aburto (4-5)


Berbagunea: Nor da nor? (6)

Literatura txokoa: Clousseau Panteragorri (7)

Gure irakasleak: Asun Cestau (8-9)

Gure ikasleak: Meri Salazar eta Iñaki Olmo (10-11)

VIII, Berbagunea DENON ARTEAN EUSKARA ERAIKITZEN



2019ko azaroaren 21ean
AZKUNA ZENTROAN

Berbagunean parte hartu nahi duten pertsonen izena eman beharko dute **944162472** telefonoan edota **berbagunea@gmail.com** posta elektronikoan.



Asier Hormaza

Algortan jaioa eta antzerki, zinema eta telebistako aktore ezaguna Berbaguneko aurkezle-dinamizatzailea izango dugu.



Gontzal Mendibil

Zeanuriko abeslariak kantuka alaituko du Berbagune, "Bagare" kanta entzutetsu eta "Biok" disko berriaren abestiekin gozaraziz.

K

kultura

Berbagunea



VIII. BERBAGUNEA

Euskaldunontzako topagunea, azaroaren 21ean, Bilboko Azkuna Zentroan.

Berbagunearen zortzigarren edizioa Azkuna Zentroko Atrioan egingo da azaroaren 21ean, 09:30etik 19:30era. Bertan bilduko gara dagoeneko euskaraz jakin eta hitz egiten dugunok zein euskara ikasten ari garenek, mahai baten inguruan, euskaraz hitz egiteko helburuarekin.

Zein da Berbagunearen helburua?

Berbagunearen helburua euskara ikusgarriagoa egitea da, kalean agerian egon dadin, eta hizkuntzaren eguneroko erabileraren garrantzia azpimarratzea. Horretarako, egun oso batean, adin eta egoera guztietako pertsonak mahai baten inguruan esertzen dira euskaraz hainbat gai buruz berba egiteko eta, bide batez, euskararen erabilera Bilbon bultzatzeko.

Nork antolatzen du Berbagunea?

Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Euskaltegien sarearekin batera, sustatzen dute Berbagunea, euskaltzaleen arteko bilgunea. Euskararen erabilera bultzatu eta babestu nahi dute, gure inguruko esparru guztietan euskaraz hitz egitera gonbidatuta.

Nork har dezake parte?

Ekimen honek herritarrentzat zabalik dagoen ekitaldia izan nahi du; hartara, euskaraz dakiten edo ikasten ari diren pertsona guztiak gonbidatzen dira parte hartzera. Ekitaldia doakoa da. Eskatzen den baldintza bakarra euskaraz hitz egitea eta hitz egiteko goinoa edukitzea da.

Funtzionamendua:

Egunean zehar lau txanda antolatuko dira, eta guztira mila pertsonatik gora hartuko du parte. Hiru txanda goizez eta bat, laugarrena, arratsaldez:

- 09:30 – 11:00 Lehen txanda.
- 11:00 – 12:30 Bigarren txanda.
- 12:30 – 14:00 Hirugarren txanda.
- 18:00 - 19:30 Laugarren txanda.



Zeri buruz hitz egingo dugu?

Parte hartzaile bakoitzak hiruorriko bat izango du landu behar diren hiru gaiekin: kultura, kirola, aisialdia, sare sozialak... Mahai bakoitzean bost lagun eta moderatzaile bat egongo dira. Moderatzailea euskaldun osoa izango da eta bere eginkizuna elkarriketa sustatzea izango da sei mahaikideen artean. Gaiak eta elkarriketak modu atseginean eta patxadatsuan jorratuko dira.

Era berean, gizartean nolabaiteko oihartzuna duten pertsonak gonbidatuko ditugu: kultur arlokoak, kirol arlokoak, alderdi politikoetako ordezkariak eta beste sektore batzuetakoak, ekimenean parte har dezaten eta parte hartzaileekin batera mahai baten inguruan hitz egiteko elkartu daitezten.

Ulibarri euskaltegiko ikasleak Berbagunean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, eman Berbagunearen berri zuen lagunen eta ezagunen artean, guztion artean euskara eraikitzen!

aldizkaria

Herri txikian, handiak

Juan Mari Aburto

Bilboko Alkatea

Juan Mari Aburtok, Ulibarri Euskaltegiarentzat propio egindako elkarrizketan, adierazten du ilusioz eta itxaropen- ez ikusten duela Bilboren berreuskalduntze-prozesua eta nabarmentzen du, pausoz pauso bada ere, euskararen normalizazioak ez duela atzera-bueltarik, euskal gizarteak hala erabaki du eta.



Bilbo, Donostia eta Gasteizko alkateak denak euskaldunak. Politikarion euskararekiko konpromisoaren seinale?

Euskal politikariorik euskara jakin eta hitz egiteko betebeharrean gaude. Alkate bakoitza bere hiriaren isla da, eta gure esku dago, beraz, gure hiriak euskalduntzea. Bilboko alkatea naizen aldetik, ikusi dut gero eta euskaltzale gehiago daudela. Azken urteetan, euskaldunon kopuruak gora egin du, baita euskararen erabilerak ere. Nahiz eta oraindik herritar gehienek komunikazio-hizkuntza gaztelania izan, esan dezaket joera hori aldatzeko prozesuan dagoela. Bide luzea daukagu aurretik, baina euskal gizartearen komunikazio-ohiturak aldatzen hasi dira eta euskalduntze-prozesua geldiezia da.

Noiz hasi zen euskararekiko zure konpromisoa; alegia, noiztik datorkizu euskararekiko zure harremana?

Zoritarrez, nire belaunaldiko jendeak ez du erraztasun handirik izan euskararen mundura hurbiltzeko.

Gerra ondoko diktadurak euskaraz egitea debekatu zigun eta etxe askotan hizkuntza galdu zen. Zorionez, nire familia euskalduna izan da, eta, diktadurak euskara debekatu arren, seme-alabok txikitatik berreskuratu genuen hizkuntza, eta euskal nortasuna berreskuratzeari ekin genion buru-belarri, eta Euskadiren proiektuan sinesten dugunok argi izan dugu beti Xalbador bertsolariak behiala kantatu zuena: "Herria da gorputza eta hizkuntza bihotza". Zorionez, ildo beretik jarraitu dugu gure hurrengo belaunaldiekin.

Zerk eman dizu euskarak?

Hizkuntzek aniztasuna eta aberastasuna ematen dute beti, eta gure kasuan, euskarak arbasoekin lotzen gaitu zuzen-zuzenean. Euskaraz mintzatzeko garenok baino ezin ditugu ulertu zenbait euskal esapide; adibidez, "Katea ez da eten" edo "Izan zirelako gara eta garelako izanen dira". Euskarak mundua eta bizitza ulertzeko ikusmolde berezi-berezia ematen du.

Euskarazko barbarik politena aukeratzeko esango balizute, zein aukeratuko zenuke? Zergatik?

"Ama", seguraski egungo euskararen dagoen hitzik zaharrenetakoa, ama baita gure herria, Ama Lurrarekin lotutakoa.

Zer esango zenioke oraindik euskararen bidea urratu ez duenari?

Eta ikaste-prozesuan lanean jo eta ke ari diren euskaltegiko ikasleei?

Arrazoia edozein dela ere, euskara ikastera oraindik pausoa eman ez duen oro euskara ikastera animatzen dut. Jakiteak ez du tokirik hartzen, eta gaur egun programa, ekimen zein erreminta asko daude euskara ikasteko. Bilbotarren ama-hizkuntza euskara izatea nahi badugu, nahitaezkoa da oraindik euskara-zaleak ez diren pertsonak euskararen bidea urratzen hastea.

Pixkanaka-pixkanaka, inork behartu barik, baina bai ulertaraziz Bilbon euskaraz bizi nahi dugula. Bestalde, ikaste-prozesuan lanean jo eta ke ari diren euskaltegiko ikasleei esan nahi diet jarrai dezatela, besoak jaitsi gabe. Ikaste-prozesua zaila da, baina merezi du, dudarik gabe. Gurea den hizkuntza maitatu behar dugu eta maitatzeko modu bakarra euskaraz bizitzea da.

Euskara da euskal kulturaren ezaugarri bereizgarriena eta euskaldun egiten gaituena. Beraz, euskaltegietan gero eta ikasle gehiago egotea eso berri ona eta adierazgarria da.

kultura

Juan Mari Aburto, Bilboko Alkatea

2015eko ekainaz geroztik Bilboko alkatea zara. Estatistikek diote Bilbo dela Euskal Herrian euskaldun kopururik handiena duen hiria eta adituek diote inoizko egoerarik onenean gaudela jauzi kualitatibo garrantzitsuak emateko. Zelan ikusten duzu Bilboko Udaletik euskararen egoera? 30 urtean euskaldunen kopurua laukoiztu egin da. Egun, Bilbon 80.000 euskaldun inguru izango gara. Egia da gure hirian jendeak inoiz baino gehiago egiten duela euskaraz, baina nik gehiago nahi dut. Gustatuko litzaidake euskara kalean, eskolan, unibertsitatean, saltokietan, enpresetan... esparru sozial guztietan entzutea. Baina oraindik egoera horretatik urrun gaude. Bilbotar euskaldun askok komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da, nahiz eta euskaraz jakin. Joera hori da, hain zuzen ere, aldatu behar duguna eta guztion esku dago.

Denok gure aldetik jartzen badugu, ziur nago lortu egingo dugula Bilbo euskararen hiri erreferente bihurtzea. Eta helburu hori lortu arte, etenik gabe lan egingo dut.

Azaroaren 21ean Bilboko Berbagunearen zortzigarren edizioa egingo dugu, duda barik, erreferente handia Bilboko euskaldunontzat. Urtero mila lagunetik gora biltzen ditu egun bakar batez, Bilboko Azkuna Zentroan, euskaraz mintzatzeko eta euskara bistaratzeko. Bilboko alkateak urtero hartzen du parte Berbagunean, eredu onak parte hartzaileentzat. Zelan baloratzen duzu ekimen hau?


Oso gustura parte hartzen dut urtero Berbagunean. Oso ekimen polita eta guztiz beharrezkoa iruditzen zait, batez ere, gazteak direlako gehienbat parte hartzen dutenak eta hurbil-hurbiletik ikustea nola bizi duten euskara eta euskaraz izugarri polita da. Berbagunea bezalako ekimenak funtsezkoak iruditzen zaizkit euskaldunon identitatea ezagutzera emateko. Era berean, aukera paregabea da mahai baten inguruan euskara ulertzen eta hitz egiten duten pertsonak euskara ikasten ari diren pertsonekin elkartzeko. Izugarri garrantzitsua da euskaraz hitz egiteari beldurra kentzea. Pertsona ezagunek edo gizarterako erreferenteak direnek Berbagunean partehartzeak ekitaldia erakargarriagoa egiten du. Horregatik, euskal gizartean nolabaiteko pisu soziala dugunok erantzukizun altuagoa dugu Berbagunean parte hartzean. Berbaguneak euskara aldarrikatzeaz gain, pertsona askok hitz egiteari dioten lotsa galtzen laguntzen du. Era berean, euskaldun berri zein euskaldun zaharrentzat, aukera ezin hobea da euskarak dituen bereizitasunak ikasteko eta pertsona anitzekin esperientziak partekatzeko.

Urtero Berbaguneak arrakasta handia du. Milatik gora lagunek parte hartzen dugu, eta horrek ageri-agerian uzten du Bilboko jendeak duen euskaraz bizitzeko gogoia.



Zer egin behar dugu Berbaguneak egun horretan aktibatzen duen euskara bultzatzeko dinamikak hurrengo egunetan etenik izan ez dezan?

Geurea da urteko 365 egunetan euskaraz hitz egitearen ardura. Berbagunearekin eta Udaletik sustatzen ditugun euskararen aldeko gainerako ekimenen bitartez, euskaraz bizitzera animatu nahi dugu gizartea. Hori da helburua, baina ekimenak gauzatzea lehen urratsa baino ez da. Hortik aurrera, herritarrek hartu behar dute lekukoa eta euskara euren egunerokoan erabili. Euskararen normalizazioa hori baita, euskaldunon hizkuntza egunerokotasunean txertatu eta, ez soilik esparru instituzionalean, hau da, lan- eta hezkuntza-eremutik at euskarak bizitza propioa izatea. Dena den, alkatea naizen bitartean, euskararen alde apustu egiten gogotsu jarraituko dut, erronka nagusia Bilboko herritarrek euskaraz bizitzea izanik.



aldizkaria



Berbagunea: Nor da nor?

Berbaguneko aurkezleak izandakoak, jakingo duzu esaten nor den nor?
Lot itzazu izena, deskribapena eta aurkezlearen irudia.



1:

Zk.	Letra
<input type="text"/>	<input type="text"/>



2:

Zk.	Letra
<input type="text"/>	<input type="text"/>



3:

Zk.	Letra
<input type="text"/>	<input type="text"/>

A-Kalifornia, 1967. ETBko aurkezle ezaguna, hainbat reality egin ditu: "Basetxea", "Sorginen laratza" eta "El Conquistador del fin del mundo".

B-Azpeitia, 1966. Umetatik bertsozalea eta pilotazalea, ogibide bihurtu ditu zaletasun horiek. Bertsolaria izan da, pilotaria ere bai, eta egun ETBko pilota-partiden emankizunetan esataria da, gehienetan, Joxean Tolosa pilotari ohia lagun.

C-Lezama, 1981. Kazetaria eta ETBko Teleberriko aurkezlea da.

D-Bergara, 1981. Aurkezlea, irrati-esataria eta musikaria da. Euskal Herriko DJ ezaguna da bere "Diskofesta" ospetsuarekin. Aktore-lanetan ere aritu da "Kerman mintzalagun bila" saioan. Egun, "Gaztea" irratsaioan aritzen da esatari.

E-Ataun, 1968. Irrati-esataria da, "Euskadi Gaztea" lan egiten du irratiaren sorreratik, 1990etik. Gaur egun, "Euskadi Irratiko" aurkezlea da.

F-Donostia, 1971. Euskal aktorea eta telebista-aurkezlea da. Bere lanik ezagunena "Vaya Semanita" izan da, non antzezten eta saioa aurkezten zuen.


G-Gasteiz, 1990. Abeslari eta telebistako aurkezlea. "Hesian" taldeko kantaria da. ETBn "Betizu" umeentzako eta "Bagoaz!" musika saioetako aurkezlea izan da.

- 1-Zuriñe Hidalgo 2-Xabier Euskitze
3-Andoni Agirregomezkorta 4-Sara Gandara
5-Oihan Vega 6-Joseina Etxeberria 7-Julian Iantzi



4:

Zk.	Letra
<input type="text"/>	<input type="text"/>



5:

Zk.	Letra
<input type="text"/>	<input type="text"/>



6:

Zk.	Letra
<input type="text"/>	<input type="text"/>



7:

Zk.	Letra
<input type="text"/>	<input type="text"/>

Emaitzak: 1:7A / 2:3F / 3:4C / 4:6E / 5:1G / 6:2B / 7:5D

kultura

LITERATURA TXOKOA: Clousseau Panteragorri

Idazle apaigarriak




Arantza Urretabizkaia

BA AL ZENEKIEN...?

- ... 1947an jaio zela, Donostian, eta aspalditik Hondarribian bizi dela?
- ... Familia abertzale batean sortua dela, frankismoaren unerik gorenean, eta aita kartzelan egon zela zortzi urtez, heriotza-zigorra jasota?
- ... 80ko hamarkadan idazle arrakastatsuenetakoa izan zela?
- ... *Zergatik Panpox* izenburuko eleberrri laburrak sekulako arrakasta eman ziola, eta berorren filma ere egin zutela?
- ... Kazetaritza eta literatura uztartu izan dituela bizitza guztian?
- ... haren azken liburua *Bidean ikasia* izenburukoa dela, Hondarribiko Alardeari buruzko saiakera, eta 2017ko Euskadi Literatura Saria eman ziotela lan horrengatik?

B1 mailan ikasle bazabiltza eta literaturazalea bazara, ziur nago oso gogoko izango duzula honako liburua:



Bilbo (+ CD)

Egilea: **Lutxo Egia**
Ilustratzailea: **Asisko eta Dom**
Argitaletxea: **Elkar**
Argitalpen-urtea: **2019**

Lutxo Egia idazle bilbotarrak (Ulibarri Euskaltegiko ikasle ohia, bide batez!) Bilbo hiriaren historia eta istorioak ezagutzeko proposamena egiten dio irakurleari. Liburu hau bisita gidatu bat bezalakoa da, eta narratzaileak kale, zubi, eraikin eta pertsonen berri ematen du, modu bizi eta erakargarrian. Oso bitxia da liburuaren hasiera: hiriko eskulturen inbentarioa. Zalantzarik gabe, bilbotarra izan zein ez izan, irakurleak bereziki gozatuko duen gida polit eta original baten aurrean gaude.

Bilduma berean daude Baiona, Donostia, Donibane Garazi, Gasteiz, Iruñea eta Maule-Lexarreko gidak.

Gure langileak: Asun Cestau



Asun Cestau Juantorena
Ezkurdarra
60 urte
Ulibarriko irakaslea

Asun nafarra da, Ezkurra, Leizatik Donezteberako bidean lehenengo herria. Herri txiki-txikia da, 150 biztanle izango ditu, denak dira elkarren ezagunak, eta denak euskaldunak.

Gurasoen etxean euskaraz egiten zenuten?

Dudarik gabe! Nik zazpi urte izan arte ez nekien erdaraz. Eskolan euskaraz egiten bagenuen, zigorra jartzen ziguten, halako estampa bat ematen ziguten. Guk jolasten ez geniken erdaraz, eta eskolan jolasteko orduan euskaraz egiteagatik estapanatxoia beti! Gogoratzen dut, baten nire nebak paperak zituela eta amak esan zidan irakasleari esateko paperak zituelako geratu zela etxean. Eta ni baseritik herrirako bidean, bi kilometro eta erdi, pentsatzen nola esan erdaraz: "nola demontre esaten da papera?", "zer esango diot nik irakasleari?". Eskolara ailegatu nintzenean, irakasleak galdetu zidan: "eta zure anaia zergatik ez da etorri?" Eta esan nion: "porque tiene papeles!". Nire artean pentsatu nuen: "papera" esaten badiot, estampa emango dit! Kar-kar-kar

Zerk ekarri zintuen Ulibarri euskaltegia?

Nik Leiztan egiten nuen lan, irakasle. 1982an, Arantzazun barnetegi bat ematea proposatu zidaten, eta nik... baietz! Eta hara joan nintzen. Barnetegi hura amaitutakoan, orduko Ulibarri euskaltegiko Artiñano zuzendariak, segidan bigarren barnetegi bat emateko proposatu zidan, eta nik... baietz! Eta bigarren hori amaitzeaz zegoela, hirugarren barnetegia segidan emateko proposatu zidan eta nik... ezetz esan nion! Eneee!! Orduan, kurtso berrian Bilbora eskolak ematen etortzeko proposatu zidan, eta nik.. baietz! Eta horrela, hasi nintzen Ulibarri euskaltegian lanean. Urriaren 3an egin ditut nik Bilbon 36 urte.

Beraz, euskarak ekarri zintuen Bilbora?

Bai hala da, gauza batek bestera eraman ninduen... eta 1981ean hasi nintzen Leiztan lehenengo euskara eskolak ematen.

Nafarroako herri txiki-txiki batetik Bizkaiko hiriburura, zer gogoratzen duzu une horretatik?

Ni sirenek jartzen ninduten ikaragarri urduri. Zenbat sirena dauden leku honetan! Poliziarenak, anbulantziarenak... Ezkurra bezalako oso leku isiletik etorrita, ba, pentsa ezazu! Baina tira, moldatu nintzen erraz samar.

Lanak ere lagunduko zizun, ezta?

Jakina! Ikasleekin eta lankideekin laguntza handia izan nuen; batez ere, zuzendariak nigan sinesten zuela pentsatzea oso inportantea izan zen.

36 urte irakasle, baina tarte horretan bestelako lanak egitea egokitu zaizu, Ulibarri euskaltegiko zuzendaritzan ere ibilia zara, ezta?

Bai, hamaika urte eman nituen zuzendari. Baina, berez, horrelako postu bat ez dut bereziki gogoko. Niri eskolak ematea gustatzen zait. Zuzendari izan nintzen garaian ere beti eman nituen eskolak, beti. Eskolak emateari ez nion inoiz utzi.



Gure langileak: Asun Cestau

Zer eman dizu euskarak?

Dena. Dudan guztia, nire gurasoen gain, euskarak eman dit. Dudana, naizena, dena eman dit.

Baina era berean, zuk euskarari ere dena eman diozu, ezta?

Bai, saiatu naiz nire eskura dagoen guztia ematen.

Eta zer kendu dizu?

Deus ere ez. Ez dit deus kendu. Nik txikitatik irakasle izan nahi nuen.

Zelan definituko zenuke zeure burua, irakasle gisa?

Zorrotza naiz nire buruarekin, eta aldi berean positiboa ere bai. Saiatzen naiz transmititzen ikasleei positibotasun hori, eta zorrotasuna ere bai, lanik egin gabe deus ez dela lortzen. Ikasleari egin duen ona aitortu behar zaio, bai, baina egin duen txarra ere bai: "hau ongi dago eta hau gaizki dago" garbi esan behar zaio. Zorrotzaren fama izan dut, baina, beno, zorrotza bai, eta positiboa ere bai.

Urte askoko ibilbidean ikasle askorekin izan duzu harremana.

Oso harreman estuak, bai. Batzuen ezkontzetara ere joan naiz, eta biren lehenengo semearen ama-bitxi naiz. Barnetegietan egondako ikasleekin, batez ere, izaten diren bizipenek, harreman sendoak sortzen dituzte. Askotan nire ikasleak izandakoen seme-alabak ere izan ditut ikasle .

Esperientzia ona izan duten seinale, ezta?

Bai, seguraski.

Zeintzuk dira zure etorkizunerako erronkak? Zelan ikusten duzu zeure burua?

Hemendik gutxira jubilatuta. Hasia naiz pentsatzen nola antolatu bizimodu hori. Oporrak hasten direnean, lehenengo astean, halako ezinegona, noraeza sentitzen dut. Uuuiiamaaaa! Ni karpetarik gabe? Nola da posible? La Casillan bizi naiz eta nire auzoan ezaguna naiz "la de la carpeta" edo "la del euskera", horrela ezagutzen naute, kar-kar! Ez dakit nola antolatuko dudan bizimodua. Topatuko dut modua euskararen inguruan segitzeko, ziur.



Zelan dakusazu euskararen gaurko egoera? Jesus Maria!

Zure eskoletan aplikatzen duzun zorrotasuna eta baikortasuna, aplika dezakegu hemen ere? Zelan ikusten duzu?

Aspaldi, orain dela 30 bat urte, Udaleko al-dizkari baterako elkarrizketa egin zidaten, eta orduan esan nuen nik banekiela eskolak ematen jubilatuko nintzela. Eta hala izango da. Euskaltegiak behar izango dira aurrera ere.

Kontziente izan behar dugu hizkuntza minoritarioetako bat dela gurea. Eta, minoritarioa den neurrian, indar handixeagoa eman beharko zaiola. Eta indarra ematea ez da dirua ematea bakarrik, jarrera soziala ere badela uste dut. Ongi komunikatzen den gizartean integratua sentitzen den ikaslea sortuko dugu hortik.

Euskararekiko konpromisoan hain denbora luze eginda, makina bat pasadizo izango dituzu kontatzeko, ezta?

Gogoan dut lehenengo mailako talde bat izan nuela, eta, jakina, ez nuen erdaraz hitz egiten. Dena keinuz azaltzen genuen, eta esate baterako, "etzan" zer zen adierazteko... bada, nola azaldu... eta ziplo! ni gelan, erdian, zoruan etzanda! Kar-kar!

Nik uste dut aktore ere izan behar duela irakasleak. Bai, bai, bai.

Asun Cestau, euskarari bizia emandako Bilboko nafarra!

Laster jubilatuko dela dio, baina kosta egiten da Ulibarri Euskaltegia bera barik irudikatzea. Une hori ailegatzeko oraindik urteak falta dira, eta bitartean asmatuko du aurrerantzean zer egin. Han edo hemen, euskarari lotuta segituko duela dudarik ez dago.

Gure ikasleak: Meri Salazar



Meri Salazar Riaño
Logroñokoa
36 urte
Ulibarri Euskaltegiko ikaslea, A2-1 maila

Meri errioxarra da, baina 15 urte daramatza Bilbon bizitzen. Unibertsitateko ikasketak egitera etorri zen, baina bertan lanean hasi eta ez zen berriro ere Logroñora bueltatu. Egun bere bizi-proiektua Bilbon du eta berriki euskara haren bizitzaren bidaide bihurtu da.

Zer ikasi duzu? Zertan datza zure lana?

Unibertsitateara etorri nintzen ikus-entzunezko komunikazioa ikastera. Segituan, arte garaikidearen ekoiztetxe batean lanean hasi nintzen, gustura, eta nire lan-proiektua bertan eraiki nuen. Arte garaikideak lengoia desberdina du, bestelako diskurtso bat, kultura egiteko beste modu bat. Ni kultura produktorea naiz eta nire proiektu propioak martxan jarri nituen, kultura kritikoa egiten dut. Nik kultura eskubide gisa ikusten dut, esan nahi baita, leku bat pentsatzeko, saretzeko eta ingurua eraldatzeko.

Noiz agertu da euskara zure bizitzan?

Euskararekin izan nuen lehenengo harremana euskaldun batekin maitemindu nintzenean izan zen.

Beraz, esan dezakegu maitasunak ekarri zintuela euskarara?

Bai, hala izan zen, kar-kar! Esaten ohi den moduan: "Hizkuntzak sehaskan edo ohean".

Zure kasuan ez zen sehaskan izan. Ez, nire kasuan ez, kar-kar!.

Urrian hasi zinen euskara ikasten Ulibarri euskaltegian, zelan izaten ari da zure ikaste-prozesua?

Prozesua oso bizia da eta buruko energia asko exijitzen du. Egun batzuetan pentsatzen dut nire buruak eztanda egingo duela, "burua sutan dago!", kar-kar!. Lekua egin behar dut nire burmuinean egitura berriak sartzeko, deklinabideak... Burua egituratzeko beste modu bat da eta ahalegin handia eskatzen du. Baina, era berean, aurrerapausoak egunetik egunera ikusten dira, lehen egunerokoan "zarata" zena, bat-batean informazioa da: iragarkiak, irratia... supituki denak du zentzua.

Zerk bultzatu zaitu orain euskara ikastera?

Bi dira arrazoiak, batetik, lanbidez aldatu egin nahi dut eta euskara behar-beharrezkoa dut, edozein lanposturen hautapen-prozesuan ezinezkoa da aurrera egitea, euskara izan barik.

Eta, bestetik, arrazoi pertsonalagoa ere badut. Familia bat sortu nahi dut.

Nire bikotekidea euskalduna da, etorriko diren umeek ere euskaraz hitz egingo dute, eta nik horren parte izan nahi dut.

Horiek dira nire arrazoi nagusiak

K

kultura



Gure ikasleak: Iñaki Olmo



Iñaki Olmo
Madrildarra
29 urte
Ulibarri Euskaltegiko ikaslea, B1 maila



Iñaki madrildarra da eta, Bilbora etorri arte, ez zuen euskararekin inongo loturarik. Duela urtebete, euskaltegian hasi zenean, ez zuen tutik ulertzen. Egun, euskara gustuko du, B2 lortu nahi du, eta gero gerokoak.

Zer egiten du madrildar batek Bilbon?

Duela 4 urte etorri nintzen Bilbora, maitasunagatik, nire bikotea ezagutu nuenean. Bera Santoñakoa da, baina Bilbon egiten du lan eta ni berarekin etorri nintzen.

Madrilgoa izanik, asko kostatu zaizu euskara ikastea?

Nahiz eta oso polita izan, nire ustez, oso zaila izan da. Hasieran, batez ere, nik Madril en ez nuen inoiz euskara entzun, ez "bai", ez "kaixo", ezer ere ez. Zero-zero, zero patatero! Nire iritziz, oso hizkuntza berezia da eta oso zaila ulertzeko, egitura, ordena, esaldiak nola antolatu... dena da desberdina.

Hamaika pasadizo izango dituzu, ezta?

Hasieran Bilbora etorri nintzenean, nire lehenengo lantokian, behin baten, telefonoa hartu eta galdetu nuen: -"Pepita López?". Eta besteak erantzun: - "Bai". Eta nik, harrituta, berriz ere galdetu: -" Perdón, Pepita López?". Eta besteak erantzun: - "Bai, bai!".
Eta nik pentsatzen: "Bye bye???" ... "Goodbye???" ... Zer da hori?? Agur ingelesez??
Imajina ezazu! Ez nuen ezer ulertzen! Zero patatero! Kar-kar.

Zein izan da, beraz, zure motibazioa euskara ikasteko?

Fisioterapeuta naiz. Osakidetzako oposizioak egin eta gairitu egin nituen. Lan egiteko zain nago, baina horretarako euskara beharrezkoa zait. Hau izan da arrazoi nagusia euskara ikasteko. Nire helburua B1 lortzea zen. Lehen urratsetik hasi nintzen, lortu egin nuen, eta, euskara oso gustuko nuen, aurrera segitu dut. Orain B2 lortzea da nire helburu berria, eta gero, auskalo!

Zer moduz moldatu zara Bilbon?

Ni Madril ondoko herri batekoa naiz, ez nintzen Madril erdigunean bizi. Horregatik, Bilbo niretzat hiri handia da, aldaketa oso handia izan da. Hasieran lagunak egitea pixka bat zaila izan da, lanagatik ez dut astirik izan harremanak egiteko. Baina, euskaltegian hasi nintzenean, oso ondo moldatu nintzen ikaskideekin. Iaz izena eman nuen Ulibarri euskaltegian eta trinko bat egin nuen, egunero bost ordukoa, eta, nahiz eta ikaskideak oso desberdinak izan, adin desberdinak eduki, lanbide desberdinak izan... oso gustura egon nintzen taldean, "familia" bihurtu ginen. Orain talde berrian nago, baina ikaskide batzuk pasa den kurtsokoak dira eta orain ere oso gustura nago.

aldizkaria



kultura

2019